

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Dominika Arrizabalaga Asurmendi

*Zegama,
Gipuzkoa
(1915-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Zegamako Asemendi Muñoa baserrian jaioa. Lorentzo Etxeberriaren alarguna. Bizi guztia ardi artean eman du, eta hainbat urte artzain ibiltari modura: Urbian, Durangaldean, Bilbo inguruan, Oiartzunen... Hamabi urterekin hasi zen bere anaia Donatorekin ardiak zaintzen, eta ezkondu ere artzain batekin egin zen. Senarra hil ondoren, Dominikak berak bakarrik jarraitu zuen lanarekin, Urbiako Oltzan. Erretiratu ostean, Legazpira joan zen bizitzera.

Zintak

ZEG-004

- **Proiektua:** Gure Nagusiak - Urola Garaia: Mende bat iruditan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Emalea:** Bereziartua, Joxe Manuel "Bere"

ZEG-053

- **Proiektua:** Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza Puiadena, Lierni
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Mikrocassetea
- **Emalea:** Elortza Puiadena, Lierni

ZEG-054

- **Proiektua:** Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza Puiadena, Lierni
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 54 min
- **Euskarria:** Mikrocassetea
- **Emalea:** Elortza Puiadena, Lierni

Pasarteak

1. Zegaman jaioa 1915ean Muño baserrian

- **Erref:** ZEG-004/001
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Zegaman, 1915-08-04ean Aizkorripeko Asemendi Auzoko Muñokoa baserrian jaio zen. Etxetik mezetara edo kalera ordubete inguru pasatzen zuten eta lasto argitan joaten ziren.</p>

2. Argindarra eta paper lantegia aurrerapen nagusiak

- **Erref:** ZEG-004/002
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:02:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

<p>Garai hartan ez zuten argirik ez urik, hamar urte zituela iritsi zen argia bere baserrira. Lehenengo Santa Barbara gainean egin zuten zentral elektriko txiki bat, gero Zegaman egin zuten. Paper lantegi ezagun bat zen Zegaman eta Izpi Santu deritzon santuari argia jarri zion.</p>

3. Paper lantegia, baserritarren ogibide

- **Erref:** ZEG-004/003
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:02:34. **Bukatu:** 00:03:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

<p>Neska zein mutil paper lantegi honetara joaten ziren lanera. Baserritarrentzat gauza haundia zen lantoki hura, hileko soldata han irabazten baitzuten.</p>

4. Aita Muñokoa eta ama Asmindarrenekoa

- **Erref:** ZEG-004/005
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:04:15. **Bukatu:** 00:04:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aita Muñokoa zen izatez, ama berriz trenbide aldeko Asmindarrenekoa.</p>

5. 9 senideko familiakoa

- **Erref:** ZEG-004/006
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:04:37. **Bukatu:** 00:06:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Eskolan oso denbora gutxi egin zuen, erdaraz ez zekiten tutik. 9 senide ziren, 5 mutil eta 4 neska eta bera bakarrik bizi da orain. Senideak izendatzen ditu.</p>

6. Aita behizain eta osaba artzain

- **Erref:** ZEG-004/007
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:06:11. **Bukatu:** 00:06:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Ardiak eta behiak zituzten etxean. Udan anaia Izpi Santura joaten zen bordara ardiekin. Gaur zegamar batek dauka borda eta saletxearen jabetza. Aita behiekin eta osaba bat artzain ibiltzen ziren.</p>

7. Gabonak aurretik Bizkaira artzain

- **Erref:** ZEG-004/008
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:06:43. **Bukatu:** 00:08:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Bizkaia aldera joaten ziren Durango, Iurreta eta Bernagoitia aldera artzaintzara. 12 urte zituela hasi ziren Bizkaira joaten eta anai zaharrenari laguntzen zion. Errepidearen bi ertzetara ardiak baztertu eta kamioien joan-etorria nola izaten zen gogoratzen du. Izpisantutik joaten ziren Bizkaira, Gabonak aurretik.

8. Biolako "hotela", Gipuzkoa eta Bizkaia arteko artzainen biltoki

- **Erref:** ZEG-004/009
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:08:26. **Bukatu:** 00:11:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Bizkai aldera zihoazen artzainak Biolatik pasatzen ziren, artzainen hotela zeritzotena. Beheko suaren ondoan egon ohi ziren eta gaua pasa ostean, Durangora abiatzen ziren Deskarga portutik Kanpazar aldera. 2 egun pasatzen zituzten joanean. Pasadizo bat aipatzen du. Bizkaia inguruko herriak eta hizkera.

9. 3 hilabetez Bizkaian apopilo

- **Erref:** ZEG-004/010
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:11:53. **Bukatu:** 00:14:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>3 hilabete igarotzen zituzten Bizkaian, Aralartik asko joaten ziren. Senar-emazte artzainak, taloak egiteko irina aldean hartuta bidean janaz joaten ziren. Apopilo egoten ziren hango baserrietan eta ordain modura batzuetan esnea eskatzen zieten, besteetan dirua. 140 bat ardi zituzten.</p>

10. Izpisantu, ehiztarien pasoko lekua

- **Erref:** ZEG-004/011
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:17:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>12 urte zituenetik 15era Bizkaira joaten zen anaiarekin, gero Izpisantura bueltatu ziren. Artzainak izendatzen ditu. Garai batean beraien borda ingurura donostiar ehiztariak etortzen ziren pasoko lekua izaki.</p>

11. Trinidadetan erromeria Izpisantun

- **Erref:** ZEG-004/012
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:17:43. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Izpisantun erromeria egiten zen Trinidadetan. Dominikaren amak janzten zuen Espiritu Santua, amantal zuria eta gerriko beltzez. Hare eramaten zituen Zegamako lantegitik "astoa bete larrosa", ermita apaintzeko. Jendeak kandelak eramaten zituen.</p>

12. Tabakoa nola egiten zuten

- **Erref:** ZEG-004/015

- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:23:44. **Bukatu:** 00:26:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

<p>Tabakoa egur baten gainean pikatzen zuten, pipa erretzeko. Ardaia egosi eta lehortu egiten zuten, gero hari su eman eta puska txiki bat jartzen zuten pipa gainean. Gero metxadun metxeroa azaldu zen. Orduko tabakoa sana zen, usai ederrekoa.</p>

13. Donostian eta Madrilen neskame

- **Erref:** ZEG-004/016
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:26:32. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Donostian egon zen neskame eta baita Madrilen ere. Ahizpak Madrilera eraman zuen hura ezagutzeko eta gerra zibilak bertan harrapatu zuenez, han gelditu zen neskame 3 urtez. Han ikasi zuen erdaraz, apaiz batek erakutsita. Oroitzapen tristeak ditu eta ez du atsegin aipatzea.</p>

14. Gerra ostean etxera bueltatu zenerako argia bazuten

- **Erref:** ZEG-004/017
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:32:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Gerra amaitzean etxera bueltatu zen eta lehengo antzera aurkitu zuen, baina argia bazuten ordurako. Etxetik erre kara astoan joaten ziren arropak garbitzera. Iturria (Izipu iturria) etxetik urrutixeago zuten. Argia altxor preziatua zen garai hartan.</p>

15. Urbian, Oizen eta Zalduondon artzain senarrarekin

- **Erref:** ZEG-004/018
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:32:15. **Bukatu:** 00:34:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Etxera itzuli eta berehala, berriz ere Donostiara bueltatu zen neskame. Ondoren Urbiara joan zen artzain senarrarekin. Abaltzisketarra zuen gizona, artzaina bera ere eta bere etxean sarri egoten zena. Aralarko ardiak saldu eta borda erosi zuen Oizen. Udazkenean Zalduondora jaisten ziren.</p>

16. Neguak Artxanda, Abadiño, Zalduondo, Oiartzun eta Osintxun pasa zituzten

- **Erref:** ZEG-004/021
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:37:20. **Bukatu:** 00:39:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Negua pasatzera Artxandara eta Abadiñora joaten ziren Zalduondotik, han bizi baitziren. Oiartzunen ere egon ziren eta azkeneko negua Osintxun pasa zuten.</p>

17. Negu garain umeak koinaten zaintzapean

- **Erref:** ZEG-004/029
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:49:37. **Bukatu:** 00:51:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Larre aldaketa egiterakoan behorra eraman ohi zuten. Aralarko ardiak ardi musugorriak izenekoak ziren. Negu partean umeak, koinatek zaintzen zituzten errentan zuten baserrian, asko baitziren. Udan batzuk bertan geratzen ziren eskolan.</p>

18. Urbiako Oltza bordan urte askoan bizi izandakoa

- **Erref:** ZEG-004/030
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:51:23. **Bukatu:** 00:52:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Oltzako Dominika deitzen diote, urte askoan egon baitzen Urbiako baserri honetan bizitzen. 26 urte zituenetik ardiak saldu arte egon zen bertan; gero ganadurik ezean ez zuten baimenik han jarraitzeko. Gaur egungo bordak nolakoak diren azaltzen du.</p>

19. Oltzen 3 baserri, familia antzeko auzoa

- **Erref:** ZEG-004/031
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:52:28. **Bukatu:** 00:56:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Lehengo bordak ez ziren gaurko modukoak. Teila modura txapa jartzen zuten eta itoginak sarri izaten zituzten. Bakoitzak ardiak aparte ibiltzen zituen eta Araba aldean egoten ziren. Oltzan 3 borda zeuden eta familia antzeko bat osatzen zuten. Borda jabeen izenak.</p>

20. Baserriko produktuak kalera saldu eta ganadua erosi zuen bizibidea ateratzeko

- **Erref:** ZEG-004/033
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:58:27. **Bukatu:** 01:00:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Dominikak gaztak, esnea, arkumeak, etab. saltzen zituen Osintxuko Mekolalde baserritik. Eibarko harakin bati okela eta esnezale bati esnea saltzen zizkion, gaztak berriz Eibarrera saltzen zituen. Aurrera ateratzeko behorra, ardiak, astoa, ahuntza etab. erosi zituen.</p>

21. Dominika etxeko lanetan; gainontzeko artzainak fondan

- **Erref:** ZEG-004/035
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:02:42. **Bukatu:** 01:04:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Oltzan zeuden bitartean legazpiarrak ikatza egitera joaten ziren. Oltzan taberna bat zegoen eta festa moduko bat egiten zen. Dominikak etxean lana izaten zuen, baina artzainak fondara joaten ziren gosariak eta otorduak egitera.</p>

22. Artzaintzarekin lotutako bizimodua

- **Erref:** ZEG-004/039
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 01:10:27. **Bukatu:** 01:13:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Dominikak azkeneko negua artzain Osintxun pasa zuen. Gero Zalduondora joan zen bizitzera eta Ixidrok soldadutzara joan zenean ardiak saldu eta Dominika Legazpira bueltatu zen semeen etxera. Orain ere ardiekin amesten du, faltan botatzen ditu. Paseoan gutxi ibiltzen da, baina Izpisantura urtero egiten du bisita loreak eramanez.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com